



## 73. OSOKO BILKURAKO AKTA

Zumaiaoko herrian, 2013ko azaroaren 28an, arratsaldeko zazpietan, udaletxe honetako batzar aretoan Udalbatza eratu da ohiko bilkura egiteko, aurrez zehaztutako eguneko aztergaien arabera. Garaiz eta zuzen deitu direlarik, Udalbatzako kide hauek bertaratu dira:

**Lehendakaria:** Iñaki Agirrezabalaga Alkorta jn.

**Bertaratutako zinegotziak:** Iñaki Ostolaza Esnal jn  
Arritokieta Gonzalez Elosua and..  
Peru Fernandez-Arroyabe Txapartegi jn.  
Eneko Agirre Maiora jn.  
Maitane Agirre Arrieta and.  
Montse Arana Perez and.  
Xabier Gallastegi Idigoras jn.  
Edurne Egaña Manterola and.  
Juan Carlos Cendoya Aizpurua jn.  
Isidro Fernandez Echave jn.  
Aitor Leiza Alberdi jn  
Emiliano Cabañas Gonzalez jn.

### Ez bertaratuak

**Idazkaria:** Gorka Urgoiti Agirre

**Kontuhartzzailea:** Mikel Zubizarreta Elicegui



## EGUNeko AZTERGAIAK

### 1.- AURREKO BILERETAKO AKTEN ONARPENA, BIDEZKO BADA:

- (67. zbkia - 2013.06.27;  
68. zbkia – 2013.07.11  
69. zbkia – 2013.07.24)**

67., 68. eta 69. aktak onartutzzat eman dira.

### 2.- EUSKARA.-

#### 2.1.- IRIZPENAK:

##### **2.1.1 ZUMAIAKO UDALEAN KONTRATAZIO PUBLIKOETAN TXERTATU BEHARREKO HIZKUNTZA BALDINTZAK ONARTZEKO ERABAKIA BERTAN BEHERA UZTEA.**

**<<2013ko AZAROAREN 19ko EUSKARA BATZORDEAREN IRIZPENA, ZUMAIAKO UDALEAN KONTRATAZIO PUBLIKOETAN TXERTATU BEHARREKO HIZKUNTZA BALDINTZAK ONARTZEKO ERABAKIA BERTAN BEHERA UZTEARI BURUZKOA**

#### AURREKARIAK

1.- 2012ko abenduaren 26an behin behineko onarpena eman zitzaien kontratazioetako hizkuntza baldintzen osoko bilkuraren, ondoren 2013ko otsailaren 27an hasierako onarpen hori argitaratu egin zen GAOn. Ez zen inolako alegaziorik egon, beraz, 2013ko apirilaren 29an behin betiko onarpena argitaratu zen.

2.- 2013ko ekainaren 5ean Espainiako Gobernuaren Ordezkartzatik ziurtagiri bat eskatu zitzaien Udal honi kontratazioetako hizkuntza baldintzen gaian alegaziorik ez zela egon egiazatzeko. Eskatutako dokumentazioa bidali ondoren, 2013ko uztailaren 23an, Gobernuaren Ordezkartzatik helegitearen jakinarazpena jaso zen Udal honetan.

3.- Harrezkero jakin da beste hainbat udaletan ere helegiteak aurkeztu dituztela eta aipatutako hizkuntza baldintzan horiek edukien aldetik legea betetzen duten arren, forma aldetik, ez dela ziurra betetzen dutenik. Hori honela izanik, eta inolako zalantzak egon ez dadin segurtasun juridikoaren mesedetan, 2012ko abenduaren 26ko osoko bilkurak onartutako erabakia bertan behera utzi eta ondorioz indargabetzea erabaki da.

#### **IRIZPENA**

Ondorioz, 2013ko azaroaren 19an, EAJ eta ARALAR eta BIIDUREn aldeko botoekin, Euskara Batzordeak aldeko irizpena jasotzen du eta honako PROPOSAMEN hau udalbatzako osoko bilkuraren iritzipean jartzea erabaki du (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 47. artikuluan araututakoari jarraituz, erabakia udalbatzako bertan daudenen gehiengo simplez hartu beharko da):



**Zumaiako Udala**

2013IAKU0012-008-001

1.- Zumaiako Udalaren kontratacio publikoetan txertatu beharreko hizkuntza baldintzak onartzeko 2012ko abenduaren 26an hartutako erabakia bertan behera utzi eta ondorioz indargabetzea.

2.- Erabaki honen berri Gobernu ordezkaritzari ematea eta GAOn argitaratzea.

Zumaian 2012ko azaroaren 19an

Peru Fernandez Arroiabe  
Euskara batzordeko burua >>

Peru Fernandez Arroyabek (BILDU) gogoratu du kontratacio publikoetan txertatu beharreko hizkuntza baldintzei 2012ko abenduaren 26an Osoko Bilkurak behin behineko onarpena eman zizkiola eta gero GAOn argitaratu ondoren 2013ko apirilaren 29an behin betikoa eman ziola. Gero, ordea, Espainiako Gobernuko ordezkaritzak helegitea jarri duela eta horren aurrean eraginkorra izateko proposatzen dute hartutako akordioa bertan behera uztea eta ondoren onartzeko den erabilera planean txertatzea.

Jarraian bozkatzeari ekin diote zinegotziek.

### **ERABAKI ZATIA**

**Aldeko botoak: 13 boto (6 BILDU, 5 EAJ-PNV, 1 PSE-EE, 1 ARALAR)**

**Kontrako botoak: 0 boto**

**Abstentzioak: 0 boto**

### **Erabakia:**

1.- Zumaiako Udalaren kontratacio publikoetan txertatu beharreko hizkuntza baldintzak onartzeko 2012ko abenduaren 26an hartutako erabakia bertan behera utzi eta ondorioz indargabetzea.

2.- Erabaki honen berri Gobernu ordezkaritzari ematea eta GAOn argitaratzea

-----



## 2.1.2 2013-2017 URTEETARAKO EUSKAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLANA ONARTZEA, BIDEZKO BADA.-

**<<2013ko AZAROAREN 19KO EUSKARA BATZORDEAREN IRIZPENA, 2013-2017 URTEETARAKO EUSKAREN  
ERABILERA NORMALIZATZEKO PLANA ONARTZEARI BURUZKOA.**

### AURREKARIAK

- 1.- Zumaiako Udalak IV. Plangintzaldiari dagokion plana onartu eta indarrean eduki du 2008-2012 urteetan.
- 2.- Beraz, planaren indarraldia iraungita dago eta orain, 2013-2017 urteetarako erabilera plana onartzea dagokio Zumaiako Udalari, V. Plangintzaldiari dagokiona hain zuzen ere.
- 3.- 2013ko azaroaren 15ean Udal honetatik HPSra bidali zen aipatutako epealdirako Zumaiako Udalaren erabilera plana, eta 2013ko azaroaren 18an planaren onespina jaso zen posta elektronikoz.

### IRIZPENA

Ondorioz, 2013ko azaroaren 19an, EAJ, ARALAR eta BIIDUREn aldeko botoekin, Euskara Batzordeak aldeko irizpena jasotzen du eta honako PROPOSAMEN hau udalbatzako osoko bilkuraren iritzipean jartzea erabaki du (Toki araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 47. artikulan araututakoari jarraituz, erabakia udalbatzako bertan daudenengi gehiengo simplez hartu beharko da):

- 1.- 2013-2017 urteetarako, V. Plangintzaldirako Zumaiako Udaleko Euskaren Erabilera normalizatzeko plana onartzea.
- 2.- Erabaki honen berri HPSko Herri Administrazioetan hizkuntza zuzendaritzari jakinatzeara

Zumaian 2013ko azaroaren 19an

Peru Fernandez Arroiabe

Zumaiako Udaleko Euskara batzordeburua>>

Peru Fernández Arroyabek (BILDU) gaia argitze aldera esan du laugarren plangintza onartu zela 2008-2012 bitartean eta orain, berriz, erabilera normalizatzeko plan berria onartzeko 2013-2017 epealdia proposatzen dutela. Udal departamentuetan diagnosi bat egin zela Zumaiako Udal nola sailkatuta dagoen jakiteko; halatan, Zumaiako Udalak gorabideko mailan dagoela ondorioztatu da. Maila hori abiapuntu hartuta helburu berriak jartzen dira erabilera plan berrian. Horrek guztiak jarraipena izango duela esan du eta, jarraipen batzordean Alkatea, euskara zinegotzia, euskarako teknikaria eta UEMAko hizkuntza normalizatzalearekin osatzeaz gain, alderdi ezberdinako ordezkariei gonbidapena egin die parte hartu dezaten.

Jarraian bozkatzeari ekin diote zinegotziek.



Zumaiako Udala

2013IAKU0012-008-001

## ERABAKI ZATIA

**Aldeko botoak: 13 boto (6 BILDU, 5 EAJ-PNV, 1 PSE-EE, 1 ARALAR)**

**Kontrako botoak: 0 boto**

**Abstentzioak: 0 boto**

### **Erabakia:**

- 1.- 2013-2017 urteetarako, V. Plangintzaldirako Zumaiako Udaleko Euskararen Erabilera normalizatzeko plana onartzea.
  - 2.- Erabaki honen berri HPSko Herri Administrazioetan hizkuntza zuzendaritzari jakinaraztea
- 

2568/1986 Errege-dekretuaren 83. artikuluari jarraiki, Alkateak zinegotziei galdetu die proposamen desberdinak eztabaideatzen sartzeko erabakia bozketa bakarrean egitea, eta ez proposamen bakoitzeko bozketa bat. Talde guztiak ontzat eman ondoren, bozkatzeari ekin diote.

## ERABAKI ZATIA

**Aldeko botoak: 13 boto (6 BILDU, 5 EAJ-PNV, 1 PSE-EE, 1 ARALAR)**

**Kontrako botoak: 0 boto**

**Abstentzioak: 0 boto**

**Erabakia:** Gai zerrendako proposamenak eztabaideatu eta bozkatzea onartu da.

---

### **2.2.- PROPOSAMENA:**

**BILDU UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKOA: ARNASGUNEAK HEDATUZ,  
ETORKIZUNA LANDU**



**<<ARNASGUNEAK HEDATUZ, ETORKIZUNA LANDU**

Abenduaren 3a, euskararen eguna. Aurten ere, euskararen egunean izango da tarterik ospakizunetarako, hausnarketarako edota aldarrikapenerako. Eta, , horretarako, elitaldi ugari eta askotarikoak antolatuko dira Euskal Herriko luze-zabalean.

Lehenik eta behin, euskararen egunak ospatzeko egun bat izan behar duelakoan gaude. Izan ere, euskara maite dugunok badugu ze ospatu 2013ko abenduaren 3an, Euskara bizirik da, baditu hiztunak, eta etorkizuneko ateak zabalik ditu oraindik ere. Baldintzarik gogorrenetan ere, aurrera egin du euskarak, eta horrek etorkizunarekin baikor izateko arrazoiak ematen dizkigu.

Geroa euskaraz eraikitzeko, ordea, garrantzitsua da zertan ginen jabetu eta egun zein egoera daukagun ikustea. Eta, gaur egun daukagun egoerari erreparatzen badiogu, zonaldearen arabera, oso egoera soziolinguistiko ezberdin eta kontrajarriak dauzkagula ohartuko gara. Oraindik ere, arrotz dabil euskara bere herriko hainbat eremutan, aitortza ofizialik gabe eta lege babesik gabe. Aldiz, nagusi da gure herriko beste hainbat eremutan.

Horregatik, tokiko errealitatetik abiatutako aurrerapausoak bultzatu behar ditugu. Herriz herri euskararen arnasguneak hedatuz landu behar dugu etorkizuna. Gure udalerria euskararen arnasgunea da, zorionez; beraz, lehenik eta behin ezinbestekoa zaigu dagokigun aitortza ofiziala aldarrikatzea. Horrekin batera, gune hauen erabateko normalizaziorako beharrezko ditugun hizkuntza politika ausartak garatzeko baliabideak exijitzea dagokigu, legea bera ere beharren neurrira egokituz.

Udalerri euskaldunetan biztanleen %70ek baino gehiagok daki euskaraz, eta oro har, euskaraz bizi gara bertako herritarrok. Udalerri euskaldunek euskararen arnasgunerik zabalena osatzen dute. Eta hizkuntza batek, biziko bada, nagusi izango den eremuak behar dituenez ezinbestean, udalerriok funtzio garrantzitsua dute euskararen geroan.

Horregatik, garrantzitsua da udalerri euskaldunetako administrazioak, batetik, gaiari beharrezkoa zaion garrantzia ematea;; eta herritarrok, bestetik, euskararen geroan jada jokatzen dugun paperaz jabetu eta euskararen inguruan sentsibilizatzea. Gure herriak erreferentzialakoak dira euskarari dagokionez, eta ondorioz, baita bertako herritarrek ere. Gune hauetan egiten diren hizkuntza politikak eta norbanakook egunerakoan ditugun hizkuntza ohiturak, jarrerek eta joerek eragin zuzena dute euskararengan.

Gure herritik abiatuta, herritar soilen implikazioaz, elkartetik eta eragileekin bat eginez eta instituzio publikoen laguntzaz pauso sendoak eman ditzakegu euskararen arnasguneak zabaltzeko. Zumaiatik inguruko herrietara, Zumaiatik Euskal Herrira.

Zumaiako udalak, 2013ko abenduaren 3an, euskararen egunean, honako adierazpen hau plazaratu nahi du:

- Zumaian euskara nagusi denez, hizkuntza politika ausart eta aurrerakoik garatzeko baldintzak daude. Udalerri euskaldunak lege babesak eta baliabideak behar ditugu aurrerapauso sendoak eman ahal izateko.
- Udalerri euskaldunek euskararen arnasgunerik zabalena osatzen dute. Eta, beraz, ezinbestekoa da Zumaian bezalako udalerriek euskararen geroan jokatzen duten paper garrantzitsua aitortzea.



Zumaiako Udalak

2013IAKU0012-008-001

- Gure herria euskarari dagokionez erreferentziazko udalerria dela jakinda, konpromisoa hartzen dugu Zumaian garapen sozioekonomiko eta soziokulturalak zein bestelako proiekuek sor dezaketen eragin soziolinguistikoa kontuan hartzeko.
- Euskararen aurkako erasoekin amaitu behar da. Hainbat udalek onartutako hizkuntz irizpideen aurka jarritako helegiteek, esaterako, kalte nabarmena egiten diote euskararen normalizazioari.
- Zumaiako Udalak, herriko eragile eta norbanakoekin elkarlanean, euskararen aldeko lanean jarraitzeko konpromisoa hartzen du.

Iñaki Agirrezzabalaga,

Bilduko Bozeraemailea.->>

Peru Fernandez-Arroyabek (BILDU) proposamena irakurri du, eta ondoren, aste honetan euskararen astea ospatzen dela-eta, alderdikeriak aparte utzita, zinegotzi guztiak gonbidatu ditu larunbatean seietan kalejiran parte hartzeko eta baita Julene Azpeitiako sari banaketan.

Ondoren bokatzeari ekin diote

## ERABAKI ZATIA

**Aldeko botoak: 13 boto (6 BILDU, 5 EAJ-PNV, 1 PSE-EE, 1 ARALAR)**

**Kontrako botoak: 0 boto**

**Abstentzioak: 0 boto**

## ERABAKI ZATIA

**Erabakia:** Bildu udal taldeak aurkeztutako proposamena -arnasguneak hedatuz, etorkizuna landu- onartu da.

-----



### **3.- GIZARTE ZERBITZUAK.-**

#### **3.1.- PROPOSAMENA:**

**FORU ALDUNDIAK ETA ABOKATUEN ELKARGOAK, ETXEGABETZE ARRISKUAN EGON DAITEZKEEN PERTSONEI BURUZKO HITZARMENARI ATXIKITZEA BIDEZKO BADA,**

“ Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Gipuzkoako Abokatuen Elkargoaren arteko lankidetzarako hitzarmenari atxikitzea erabaki da, hitzarmenaren xedea honako izanik: Gipuzkoako Lurralde Historikoan bizi diren pertsonen eskubideak babesteko laguntza juridiko integraleko zerbitzua eskaintza; pertsona horiek (I) beren etxebizitza bakarra galtzeko arriskuan egon behar dute; (II) giarte bazterketaren mugan, diru erreklamazioen ondorioz, horien sorburuan hipoteka bidez bermatutako mailegua egon ala ez egon; eta (III) fede oneko zordunak izan behar dute.”

### **ERABAKI ZATIA**

**Aldeko botoak: 13 boto (6 BILDU, 5 EAJ-PNV, 1 PSE-EE, 1 ARALAR)**

**Kontrako botoak: 0 boto**

**Abstentzioak: 0 boto**

**Erabakia:** Foru Aldundiak eta Abokatuen Elkargoak, etxegabetze arriskuan egon daitezkeen pertsonei buruzko hitzarmenari atxikitzea onartu da.

---

### **4.- INGURUMENA.-**

#### **4.1.- PROPOSAMENA:**

**UROLA ITSASADARRA BABESTEKO ETA MENTENTZEKO PLAN BEREZIAREN IZAPIDETZA GAUZATZEKO AKORDIOA ONARTZEA, BIDEZKO BADA ETA ALKATEARI IZAPIDETZA AURRERA ERAMATEKO GAITASUNA EMAN.**

**<<PROPOSAMENA, UROLA ITSASADARRA BABESTEKO ETA MANTENTZEKO PLAN BEREZIAREN IZAPIDETZA GAUZATZEKO.**

**AURREKARIAK**



**1.-** Ikusirik, abenduaren 19ko 800/2011 Alkate dekretu bidez Urolaren itsasadarra babesteko eta mantentzeko Plan Berezia landu eta idazteko laguntza eta aholkularitza zerbitzuaren kontratazioa esleitzeko, prozedura ireki bidez eta ohiko izapidez, baldintza administratiboen eta teknikoen pleguak onartu zirela.

Ikusirik, Plan Bereziaren helburuak hurrengokoak direla:

- Natur baliabideak kontserbatu, hobetu eta berreskuratu.
- Estuarioaren erregimen hidrologiko naturala eta haren dinamika mantendu eta bermatu, haren birsorkuntza sustatz.
- Sistema barruko habitatak eta flora zein fauna populazioak aktiboki kontserbatu eta hoberen ordezkatutakoak babestu.
- Uren kalitatea bermatu.
- Flora aloktono inbaditzailea erauzi.
- Aisialdirako erabilerak eta hiri-presioak kontrolatu.

Plan Bereziaren eraginpeko eremuak 160,32 ha azalera osoa du. Zumaia (154,56 ha), Getaria (2,06 ha, Santixoko ingurunean) eta Zestoako (3,72 ha, Beduako meandroan) udalerrien artean banatzen dena.

UDALERRIA	AZALERA (ha)	azalera(%)
Zumaia	154,56	%96,4
Zestoak	3,72	%2,3
Getaria	2,06	%1,3
<b>GUZTIRA</b>	<b>160,32</b>	<b>%100,0</b>

**2.-** Ikusirik, martxoaren 21eko 191/2012 Alkate dekretu bidez, Urolaren itsasadarra babesteko eta mantentzeko Plan Berezia landu eta idazteko laguntza eta aholkularitza zerbitzua emateko kontratua EKOLUR INGURUMEN AHOLKULARITZA S.L.L. enpresari esleitu zitzaiola.

Ikusirik, 2013ko ekainaren 10ean EKOLUR INGURUMEN AHOLKULARITZA S.L.L.ek Zumaiko Udaletxearen Plan Bereziari dagokion hurrengo dokumentazioa entregatu zuela:

- A- I. MEMORIA (Informazio- eta justifikazio-memoria. Diagnostikoa. Plan Bereziaren helburuak eta antolamendu-proposamenaren oinarriak)
- A- II. MEMORIA (Ekintza-plana)
- A- III. MEMORIA (Partaidetza plana)
- B- Antolaketa-jarraibideen azterketa eta plana gauzatzeko prozesuaren kudeaketa.
- C- Hirigintza-araudia.
- E- Informazio-planoak eta antolamendu xehakatuaren planoak.

**3.-** Ikusirik, 2013ko ekainaren 11ean aipatutako dokumentua Ingurumen, Landa eta Itsaso Inguruneko Ministeriora, Gipuzkoako Itsasertzeko Zerbitzura igorri zela eta 2013ko abuztuaren 5ean erakunde horretatik dagokion txostena jaso zela.



**Zumaiako Udalak**

2013IAKU0012-008-001

**4.-** Ikusirik, ekainaren 30eko 2/2006 legearen, Lurzorua eta hirigintzari buruzkoa, 92. artikuluak hirigintza antolamenduko plan batek udalerri bateko lurzorua baino gehiago hartzen duenean, udal guztien arteko adostasuna tarteko, horietako tokierakundeetako bakar batek planaren formulazioa eta dagozkion izapideak egin ahal izango dituela.

**5.-** Ikusirik, 2013ko uztailaren 24ean Getariako eta Zestoako Udalei jakinarazi zitzaiela uztailaren 24ko 527/2013 Alkate dekretuak euren adostasuna eskatzen Zumaiako Udalak berak bakarrik Urolako Itsasadarra Babesteko eta Mantentzeko Plan Berezia formulatu eta izapidetu dezan.

**6.-** Ikusirik, 2013ko uztailaren 24an Zestoako Osoko Bilkurak hartutako erabakia, non adostasuna ematen den Urolako Itsasadarra Babesteko eta Mantentzeko Plan Berezia Zumaiako Udalak landu eta izapidetu dezan.

**7.-** Ikusirik, 2013ko azaroaren 25ean Getariako Osoko Bilkurak hartutako erabakia, non adostasuna ematen den Urolako Itsasadarra Babesteko eta Mantentzeko Plan Berezia Zumaiako Udalak landu eta izapidetu dezan.

Ondorioz, Plenoaren ezagutzan jartzen da ondorengo PROPOSAMENA onar dezan:

1.- Urolako Itsasadarra Babesteko eta Mantentzeko Plan Bereziaren formulazioa eta izapideztea gauzatu.

2.- Alkateak Urolako Itsasadarra Babesteko eta Mantentzeko Plan Berezia onartzeko tramiteak hasi ditzala.>>

Aitor Leizak (BILDU) gaia aurkeztu du gogoratuz plana Getariako Udalarekin eta Zestoako Udalarekin adostuta Zumaiako Udalak tramatituko duela ETA agerraldi publikoan jarriko dela; bukatzeko Xabier Gallastegi EAJ-PNVeko zinegotziari eskerrak eman dizkio plana aurrera ateratzeko egin duen lanagatik.

Ondoren bozkatzeari ekin diote

## **ERABAKI ZATIA**

**Aldeko botoak: 13 boto (6 BILDU, 5 EAJ-PNV, 1 PSE-EE, 1 ARALAR)**

**Kontrako botoak: 0 boto**

**Abstentzioak: 0 boto**

### **Erabakia:**



1.- Urolako Itsasadarra Babesteko eta Mantentzeko Plan Bereziaren formulazioa eta izapideztea gauzatu.

2.- Alkateak Urolako Itsasadarra Babesteko eta Mantentzeko Plan Berezia onartzeko tramiteak hasi ditzala

-----

## 5.- HIRIGINTZA.-

### 5.1.- IRIZPENA:

#### **ETXEBIZITZA TASATUEN UDAL ORDENANTZAREN BIGARREN ALDAKETA ONARTZEA, BIDEZKO BADA.**

**<<2013KO AZAROAREN 25EKO HIRIGINTZA, OBRA ETA ZERBITZU BATZORDEAREN IRIZPENA, ETXEBIZITZA TASATUEN UDAL ORDENANTZAREN BIGARREN ALDAKETA.  
AURREKARIAK**

1.- 2008ko azaroaren 6ko ezohiko batzarraldian Osoko Bilkurak Udal etxebizitza tasatuen ordenantzari hasierako onarpena eman zion. Agerraldi publikoa igarota, behin betiko onarpena eman zitzzion. Behin betikotasunaren onarpenaren berri 2010eko ekainaren 11ko (109 zbk.) Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eman zen.

Ordenantza honek Zumaiako Udalerriko «Udal Etxebizitza Tasatuen» babes publikoko erregimen juridikoa zehaztea du xede.

Zumaiako udalerrian «Udal Etxebizitza Tasatuak (UET)» izango dira, beren salmenta edo alokairu prezioa mugatua izateagatik eta Ordenantzan zehaztutako gainerako baldintzak beterik, Udalak halakotzat hartzen dituenak. Etxebizitza bakoitzarekin loturiko garaje eta trastelekuetara ere zabaltzen da «Udal Etxebizitza Babestuaren (UET)» izaera.

2.- Ordenantza honek babes erregimen honetan etxebizitza hauek sartzen ditu:

A) Izaera berdineko elementuek osaturiko egoitza eraikuntza multzo baten barnean dauden etxebizitzak, honako kasu hauetan:

1. Hirigintza plangintzak espresuki erabilera horretarako kalifikaturiko lurzoruetan egiten badira.
2. Egoitza lurzoru libreetan egiten direnean, etxebizitzen sustatzailearen eta Udalaren artean akordioa edo hitzarmena badago.
3. Udal titulartasuneko lurzoruan egiten direnean, Udalak edo, hala behar badu, kudeaketaz arduratzen den udal elkarteak hala erabakitzentzuenean.



## Zumaiako Udala

2013IAKU0012-008-001

B) Izaera berdineko elementuez osaturiko egoitza multzo baten barnean ez egon arren, lokal bat etxebizitzak bilakatu ondoko emaitza izanik erregimen orokorreko udal etxebizitzak tasatu gisa harzten diren etxebizitzak.

3.- Interesgarria ikusi da Udalak edo Zumaia Lantzen udal elkartearen etxebizitzak izaera berdineko elementuez osaturiko egoitza multzo baten barnean ez egon arren, Udalbatzak erabakitzetan duenean etxebizitzak tasatu bezala kalifikatzeko aukera izatea eta etxebizitzak hauetan behar dituzten baldintza orokoretan malgutasuna izatea baldintza minimo bezala etxebizitzak horiek eraikita daudenez etxebizitzak Zumaiako Arau subsidiarioetan ezartzen diren biziarratasun baldintzak betetzea ezinbestekoa izanik etxebizitzak irisgarriak izatea.

## IRIZPENA

Ondorioz, 2013ko azaroaren 25eko Hirigintza, Obra eta Zerbitzuetako Batzorde informatzaileak, ondorengo botoekin:

Alde: Iñaki Agirrebalaga  
Isidro Fernandez  
Xabier Gallastegi  
Emiliano Cabañas  
Aitor Leiza

Aurka: 0  
Abstentzia: 0

ALDEKO irizpena eman du eta honako Proposamen hau udalbatzako osoko bilkuraren iritzipean jartzea erabaki du, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuz onartutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozeduraren Arautegiaren 135.3 artikuluak xedatutakoaren arabera, araututakoari jarraituz, erabakia udalbatzako bertan dauden gehiengo soila beharko delarik, apirilaren 2ko 7/1985 Toki Erakundetako Oinarrietako 47. artikulan ezarritakoaren arabera, ondorengo PROPOSAMENA egin da:

1.- Udal Etxebizitzak tasatuaren ordenantzaren 2.2. artikulan eta 4. artikulua aldatzea, modu honetan geratuaz:

2. artikula. «Udal Etxebizitzak Tasatuaren» kontzeptua.

1. Zumaiako udalerrian «Udal Etxebizitzak Tasatuak (UET)» izango dira, beren salmenta edo alopakua prezioa mugatua izateagatik eta Ordenantza honetan zehaztutako gainerako baldintzak beterik, Udalak halakotzat hartzen dituenak. Etxebizitzak bakoitzarekin loturiko garaje eta trastelekuetara ere zabaltzen da «Udal Etxebizitzak Babestuaren (UET)» izaera.

2. Babes erregimen honetan sartuko dira:

A) Izaera berdineko elementuez osaturiko egoitza eraikuntza multzo baten barnean dauden etxebizitzak, honako kasu hauetan:

1. Hirigintza plangintzak espresuki erabilera horretarako kalifikaturiko lurzoruetan egiten badira.
2. Egoitza lurzoru libreetan egiten direnean, etxebizitzien sustatzailearen eta Udalaren artean akordioa edo hitzarmena badago.
3. Udal titulartasuneko lurzoruan egiten direnean, Udalak edo, hala behar badu, kudeaketaz arduratzen den udal elkarteark hala erabakitzetan duenean.



B) Izaera berdineko elementuez osaturiko egoitza multzo baten barnean ez egon arren, lokal bat etxebizitzak bilakatu ondoko emaitza izanik erregimen orokorreko udal etxebizitzak tasatu gisa har-tzen diren etxebizitzak.

C) Udalak edo Zumaia Lantzen udal elkartearen etxebizitzak izaera berdineko elementuez osaturiko egoitza multzo baten barnean ez egon arren, Udalbatzak erabakitzenten duenean.

4. artikulua. *Zumaiako Udal Etxebizitza Tasatuen ezaugarri orokorrak.*

1. Zumaiako Udal Etxebizitza Tasatuek, erregimen orokorra eta berezia bi erregimenetan, ez dute 90 m<sup>2</sup>(t) baino azalera erabilgarri handiagoa izango, behar bezala egiaztagoikoa arrazoi teknikoengatik, eta Udalak aldez aurretik onartuta, 90 metro erabilgarri baino gehiagoko etxebizi-tzak egin behar direnean edo bereziki familia edo bizikidetza-unitate handientzako direnean izan ezik, kasu horretan ez dituzte 120 m<sup>2</sup>(t) baino gehiago izango, eta sustapen bakoitzean gehienez ere guztizkoaren 100eko 5 erabiliko da horretarako.

2. Izaera orokorrez, Udal Etxebizitza Tasatu guztiek izango dituzte aparkaleku plaza bana eta trasteleku bana. Horiek ez dituzte, hurrenez hurren, 30 m<sup>2</sup>(t) eta 10 m<sup>2</sup>(t) baino azalera handiagoak izango, eta Jabetza-erregistroan inskribatuko da etxebizitzarekiko duten lotura hori. Hala ere, eraikuntza zehatz batzuetan, teknikoki ezin badira aparkaleku edo/eta trasteleku horiek egin, edo ezin bada neurri horietara mugatu, behar bezala egiaztu ondoren, Udal Administrazioak edo haren erakunde kudeatzaileak baldintza hori kendu edo aldatu ahal izango du.

3. Udal Etxebizitza Tasatuek, beren garaje eta trastelekuekin, dagokien hirigintza plangintza edo udal araudian edo, horrelakorik ez badago, Autonomi Administrazioaren Babes Ofizialeko Etxebizitza Tasatuetarako (BOET) zehaztutako teknika eta diseinu baldintzak beteko dituzte bietiere, eta horiek zehazten ez diren bitartean, Erregimen Orokorreko Babes Ofizialeko Etxebizitzei eska-tzen zaizkienak.

4. Udalak edo Zumaia Lantzen udal elkartearen etxebizitzak izaera berdineko elementuez osaturiko egoitza multzo baten barnean ez egon arren, Udalbatzak erabakitzenten duenean, eta etxebizitza horiek eraikita daudenean etxebizitzak Zumaiako Arau subsidiarioetan ezartzen diren bizigarritasun baldintzak bete beharko dituzte. Ezinbestekoa izango da etxebizitza irisgarritasun araudia betetzea etxe sarreraraino.>>

Alkateak gaia aurkeztu du eta azken finean, esan du, aldaketak etxepe berdinean kalifikazio ezberdinak dituzten etxebizitza tipologia desberdinak edukitzea ahalbidetzen duela.

Edurne Egañak (EAJ-PNV) gaia hain berandu ekartzeak kezka sorrarazi diola Zumaia Lantzeneko administrari bezala esan du eta kudeaketa eskasaren isla dela nabarmendu du. Zumaia Lantzenek erabakia hilabete asko hartu zuela eta orain arte erabakia ez gauzatzeak eragina izan dezakela udala eta Zumaia Lantzenen finantzaketa.

Alkateak aitortu du zertxobait berandu dabilzala, bainan gaiaren kronologia ezagutu behar dela, izan ere Obegisa enpresari eskaintza egin zitzzion zorra kitatzeko eta erantzunaren zain ibili direla.



Zumaiako Udala

2013IAKU0012-008-001

## ERABAKI ZATIA

**Aldeko botoak: 13 boto (6 BILDU, 5 EAJ-PNV, 1 PSE-EE, 1 ARALAR)**

**Kontrako botoak: 0 boto**

**Abstentzioak: 0 boto**

**Erabakia:** Etxebizitza Tasatuen udal ordenantzaren bigarren aldaketa onartu da.

-----

### 6.- OGASUNA.-

#### 6.1.- KREDITU ALDAKETEN BERRI EMATEA ( 20TIK 25ERA).

OSOKO BILKURARI 2013KO ONDORENGO KREDITU ALDAKETAK JAKINARAZI:

20.kreditu aldaketa, TR		Hasierako kreditua	Gutxikuntza	Guztira
742 alkate dekretu zenbakia.				
1 0100.227.442.20.0 1 2013	KALE GARBIKETA,markes ina eta jai egunak	427.119,00	8.691,60	418.427,40
		Hasierako kreditua	Gehikuntza	Guztira
1 0100.227.456.00.9 9 2013	HONDARTZETAKO ZAINTZA	122.500,00	8.691,60	131.191,60



**Zumaiako Udala**

2013IAKU0012-008-001

**21.kreditu aldaketa, TR**

746 alkate dekretua

		<b>Hasierako kreditua</b>	<b>Gutxikuntza</b>	<b>Guztira</b>
1 0100.227.442.20.01 2013	KALE GARBIKETA,markes ina eta jai egunak	418.427,40	1.452,00	416.975,40
Partidak sortu				
		<b>Hasierako kreditua</b>	<b>Gehikuntza</b>	<b>Guztira</b>
1 0100.203.449.00.00 2013	Kotxearen alokairua	0,00	1.452,00	1.452,00

**22.kreditu aldaketa, TR**

768 alkate dekretua

		<b>Hasierako kreditua</b>	<b>Gutxiera</b>	<b>Guztira</b>
1 0600.226.444.00.98 2013	ALGORRIKO HAINBAT GASTU	5.000,00	1.058,75	3.941,25
1 0600.227.444.00.07 2013	ALGORRIKO GESTIOAREN KONTRATUA	76.000,00	6.039,11	69.960,89
Partidak sortu				
		<b>Hasierako kreditua</b>	<b>Gehikuntza</b>	<b>Guztira</b>
1 0600.626.444.00.01 2013	ALGORRI INTERPRETAZIO ZENTROKO ALTZARIA	0,00	1.058,75	1.058,75
1 0600.626.444.00.00 2013	ALGORRI INTERPRETAZIO ZENTROKO APLIKAZIO	0,00	6.039,11	6.039,11



Zumaiako Udala

2013IAKU0012-008-001

23.kreditu aldaketa, HC				
769 alkate dekretua.		Hasierako kreditua	Gehikuntza	Guztira
1 0800.131.449.00.00	PEOIAK ALDI BATERAKO PERTSON.LABORALA	3.551,58	16.278,75	19.830,33
1 0800.160.449.00.01	GIZARTE SEGURANTZA.BRIGADA	49.598,00	6.221,25	55.819,25
Partida sortu		Hasierako kreditua	Gehikuntza	Guztira
2 0000.420.000.99.00	Pertsonala kontratatzeko diru-laguntha	0,00	22.500,00	22.500,00

24.kreditu aldaketa, HC				
		770 alkate dekretua.		
		Hasierako kreditua	Gehikuntza edo altak	Amaierako kreditua
1 1000.227.611.00.09	2013	Diru-bilketa zerbitzua	158.799,62	4.629,50
<b>GUZTIRA ...</b>			<b>158.799,62</b>	<b>4.629,50</b>
		Hasierako kreditua	Gehikuntza edo altak	Amaierako kreditua
2.000.130.000.00.01	2013	Jarduera ekonomikoak	362.539,37	1.011,89
2.000.0393.000.00.01	2013	Berandutza interesak	14.659,61	123,54
2.000.0112.000.00.02	2013	Hiri ondasun higiezinen gaineko zerga	1.740.583,18	137,97
2.000.0113.000.00.01	2013	Trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zerga	607.818,99	2.164,68
2.000.0391.000.00.01	2013	Isunak	92.772,41	453,06
2.000.0310.000.00.01	2013	Etxez etxeko zabor bilketa	681.907,21	681,74
2.000.0114.000.00.01	2013	Plusbaliak	163.085,19	55,70
2.000.0321.000.00.04	2013	Mahaiak, azoka lurraren erabilera	27.130,83	0,92
<b>GUZTIRA ...</b>			<b>3.690.496,79</b>	<b>4.629,50</b>

25.kreditu aldaketa: TR.					
771 alkate dekretua			Hasierako kreditua	Gutxikuntza	Guztira
1 0100.227.442.10.99 2013	63	ETXEZ ETXEKO ZABOR BILKETA	304.648,00	25.000,00	279.648,00
			Hasierako kreditua	Gehikuntza	Guztira
1 0100.601.511.00.01 2013	581	HOBETZE OBRAK BIDE PUBLIKOETAN	93.000,00	25.000,00	118.000,00

Zumaia 2013ko azaroaren 25ean

Kontu-hartzaileak >>



## 6.2.- IRIZPENA:

### 26. KREDITU ALDAKETA ONARTZEA, BIDEZKO BADA.-

#### <<2013KO AZAROAREN 25EKO OGASUN BATZORDEAREN IRIZPENA: 26.KREDITU ALDAKETAREN ONARPENA:

Proposatutako kreditu aldaketa honako hau da:

2013. urtean 2014rako konpromesuzko kreditu berri bat sortzea:  
"5 0100.601.435.00.02 2014" "FRONTOIA OBRA ZUZENDARITZA": 156.000€  
Horretarako 2014ko aurrezki garbia erabiliko da.

de obra del Frontón para el 2014 por cuantía de 156.000€ con cargo al ahorro neto del 2014.

IRIZPENA /

Ondorioz, 2013eko azaroaren 25ean ondorengo botoekin:

Aldeko botoak / a favor: 3 (1BILDU,1 ARALAR, 1 PSOE).  
Abstentzia / abstención: 2 EAJ  
Aurkako botoak/ Votos en contra: 0

ALDEKO irizpena jasotzen du eta honako PROPOSAMEN hau Osoko Bilkuraren iritzipean jartzea erabaki du (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 47 artikuluan araututakoari jarraituz, erabakia udalbatzako bertan daudeneng gehiengo simplea beharko da).

Zumaia 2013ko azaroaren 25ean

Kontu-hartzaleak>>

Alkateak gaia aurkeztu du esanez plenoak onartu behar duen kreditu aldaketa dela, izan ere frontoiaren hitzarmena sinatuko dela eta horretarako obra zuzendaritzak 156.000€ko kostea duenez konpromezu-kreditua egin behar delako 2014rako.

Edurne Egañak (EAJ-PNV) bere zalantzak azaldu ditu gaiaren inguruan; alde batetik udal-gobernua hitzarmena sinatzen doanez ea jakin liteken zenbat iraungo duen obra, izan ere obraren iraupenaren arabera obra zuzendaritzak iraupen berdina izan beharko duelako, eta frontoiaren obra 2014ean bukatu beharko litzatekeelako kreditu-aldekatarekin bat egiteko; informaziorik ez dutela nabarmendu du. Beste aldetik, atentzia deitu diela lehenago zeuden 75.000€ ez zela konpromezu-kreditua, gastatu egin zela beste kreditu aldakatarekin, beraz kopuruak nondik atera diren eta pleguak aurreratuta dauden abenduan ateratzeko galdezu du. Beharrezko den zalantzan jarri du kontuan izanda aurreko plan ekonomiko finantzarioaren arabera inbertsioetarako ahalmena zazpiehun mila euro inguruan aurreikusten zela 2014rako eta kreditu aldaketa honekin jada %50a hipotekatuta geratzen



**Zumaiako Udala**

2013IAKU0012-008-001

delako. ezin dutela onartu, ez frontoiaren kontran daudelako baizik eta kudeaketa desegoki bat eman delako hemen, bai azalpen aldetik, informazio aldetik ez delako nahikoa informazio eman hau onartzeko, arriskua duen operazio bat delako.

Alkatea adierazi du, Frontoiaren epearri dagokionez, berez, pleguen arabera 18 hilabetetan bukatuta egon behar luke, baina badirudi SUKIAkoak epe laburragoan egiteko gauza izango direla (8 edo 9 hilabetetan); bestetik, berez aurrekontuetan jasota zegoela proiektua egin zenean, frontoiko proiektua egin zenean, alegia, obra zuzendaritzak 150 mila euro izango zituela eta kreditu aldaketena baliteke 2012-2013an eurek jarri izanaeta agian orain 2014koa horregatik ez da egongo sartuta. Esleipenari dagokionez, kopuruagatik negoziatua da eta abenduan esleituko da, garrantzia eman diotelako kontratuari.

Emiliano Cabañasek (PSE-EE) batzordean baiezkoa eman zuela eta plenoan ere gauza bera egingo duela, frontoia behingoz ateratzen den espero duelako, baina horrenbeste urtetan frontoiaren inguruan ibilita orain egitear dagoenean inoiz baina informazio gutxiago daukatela azpimarratu du; horregatik, informazioa eskatu du.

Alkateak esan du gaia hirigintza batzordean azaldu dela mila bider eta ez dagoela aparteko beririk eurek aditzera eman ez dutena, operazioaren nondik norakoak betikoak dira eta orain arte geratzen zen zalantza bakarra eskritura sinatu ahal izateko salmenta minimora iritsiko ziren edo ez jakitea zen.

## **ERABAKI ZATIA**

**Aldeko botoak: 8 boto (6 BILDU, 1 PSE-EE, 1 ARALAR)**

**Kontrako botoak: 0 boto**

**Abstentzioak: 5 boto (5 EAJ-PNV)**

**Erabakia:** 26. kreditu aldaketa onartu da

-----

## **6.3.- TXOSTEN EKONOMIKO-FINANTZARIOAREN BERRI EMATEA.-**



**<<KONTU-HARTZAILEAREN TXOSTENA: TXOSTEN EKONOMIKOARI BURUZKOA**

**AURREKARIAK:**

2013ko urriaren 31an Kontu-hartzaileak, Osoko Bilkuran jarraian aipatzen den txostena aurkeztu zuen:

<b>PLAN</b>	<b>EKONOMIKOA-FINANTZARIOA</b>	<b>BERRIA</b>	<b>EGITEKO</b>	<b>BEHARRA</b>
<b>Aurrekariak:</b>				
2012an Zumaiako Udaleko Osoko Bilkurak 3 urtetarako Plan Ekonomiko finantzarioa onartu zuen 2014.urteko ekitaldiraino.				
2012an Estatuak onartu zuen 2/2012 lege organikoa eta une horretatik aurrera funtsezko 3 baldintza bete behar zirela ezartzen zuen lege berriak:				

- \*Egonkortasuna
- \*Iraunkortasuna
- \*Gastuaren erregela.

Aurreko plan ekonomiko finantzarioan soilik horietako baldintza bat bete behar zen, egonkortasuna, 3 urteko epean eta udalaren datuak bakarrik kontuan izanik. Lege berri hau indarrean dagoenetik hiru dira batera bete behar diren baldintzak. Eta ez badira betetzen oreka urte bateko epean berrezarri behar da. Hiru baldintzen kalkuluak, gainera era bateratuaren egin behar dira, udalaren eta bere organismo autonomoen datuak kontuan izanik, baina ez Zumaia Lantzen-enak. **Lege berrira eguneratzea izango litzateke lehenengo arrazoia plan ekonomiko finantzario berria egiteko.**

**Bigarren arrazoia** 2013ko hasierako aurrekontuan gastuaren erregela ez betetza izango litzateke. Hasiera batean aurrekontua Foru Aldunditik 2013rako landu zenean esan zitzagun gastuaren erregelaren kalkulurako, 2012ko hasierako aurrekontuko zenbatekoak kontuan izan beharko genituzkeela. Horregatik 2013ko aurrekontua onartu zenean kontu-hartzaileak egin zuen txostenean aldeko izan zen. Baina aurrerago gobernuaren antolamendu berria hobeto islatzeko, diputazioak irizpidea aldatu zuen, 2012ko likidazioa ("O" fasea) bere kalkulurako erabiliz. Memento honetatik aurrera automatikoki gastuaren erregela ez dugu betetzen, 2012ko ekitaldian zehar gastua bere osotasunean ez zelako gauzatu, adibidez pilotalekuaren BEZA edo eguberrietako aparteko ordainsaria ez zirelako gastatu. Hau da plan ekonomiko-finantzario berria egiteko bigarren arrazoia. Gainera 2013.urteko ekitaldian zehar kreditu gaikuntza handia izaten ari gara ikuskaritzako fakturak direla eta, txosten hau prestatu dugun eguneraino 136.676,48€ izan dira.

**Hirugarren arrazoia** kreditu-aldekaten ondorioz izan zen, gerakinaren bitartez egiten diren kreditu aldaketetan beharrezko da Osoko Bilkuran informazio hori azaltzea, aurrekontu egonkortasunean 1.kapitulutik 7.kapitulurainoko gastuak handiagoak direlako, sarrerak baino. Gerakina 8.kapituluko diru-sarrera baita. Zehazki ez da betetzen Udalaren laugarren kreditu aldaketatik aurrera.

**Aurreko guziagatik azaltzen dut,**

**Urte batera plan ekonomiko- finantzarioa egitea beharrezko dela hilabete bateko epean expedientea onartzen den mementotik.** Gehienez ere bi hilabeteko epean onartu beharko dituzte planak, aurkezten dituzten egunetik zenbatzen hasita, eta hiru hilabete izango dituzte martxan jartzeko.

**ZIOA:**

Bestalde: 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa, horrela dio 21. artikulan:

21. artikulua. Plan ekonomiko-finantzarioa.

1. Aurrekontu-egonkortasuneko helburua, zor publikoko helburua edo gastu-araua bete ezean, administrazio urratzaileak urtebeteko epean helburuak edo gastu-araua bete ahal izatea bermatuko duen plan ekonomiko-finantzario bat prestatu beharko du, bietiere artikulu honetan aurreikusitako edukia eta norainokoa barne hartuko dituena.

2. Honako informazio hau bilduko du, gutxienez, plan ekonomiko-finantzarioak:

- a) Ezarritako helburua ez betetzearen kausak edo, hala badagokio, gastu-araua ez betetzearenak.
- b) Diru-sarreren eta gastuen joera-aurreikuspenak, bietiere zerga- eta gastu-politiketan aldaketarik gertatuko ez dela suposatuta.
- c) Planean jasotako neurrien azalpena, kuantifikazioa eta ezarpen-egutegia, horiek zer aurrekontu-sailetan edo aurrekontuz kanpoko erregistrotan kontabilizatuko diren adierazita.



## Zumaiako Udala

2013IAKU0012-008-001

d) Plana ekonomia- eta aurrekontu-aldagaiei dagokienez zer aurreikuspenetatik abiatzen den, eta aurreikuspen horiek zer hipotesitan oinarritzen diren, 15. artikuluaren 5. paragrafoan aipatutako txostenean jasotakoarekin bat eforriz.

e) Sentikortasun-analisia, egoera ekonomiko alternatiboak aintzat hartuta.

Bestalde Lege Organiko honek 23.artikulan dio:

### **23. artikula. Plan ekonomiko-finantzarioen eta berroeka-planen izapideztea eta jarraipena.**

1. **Plan ekonomiko-finantzarioak eta berroeka-planak hurrengo paragrafoetan jasotako organoenean aurrean aurkeztuko dira, gehienez ere hilabeteko epean,** ez-betetzea egiazatzen denetik edo 11.3 artikulan aurreikusitako egoerak hautematen direnetik aurrera zenbatuta, hurrenez hurren. Organo horiek gehienez ere bi hilabeteko epean onartu beharko dituzte planak, aurkezten dituzten egunetik zenbatzen hasita, eta hiru hilabete izango dituzte martxan jartzeko, ez-betetzea egiazatzen denetik edo 11.3 artikulan aurreikusitako egoerak hautematen direnetik.

2. Gobernuak egingo ditu Administrazio Zentralaren plan ekonomiko-finantzarioa eta berroeka-plana, Ogasun eta Herri Administrazioetako ministroak proposatuta, eta Gorte Nagusietara bidaliko ditu onar ditzaten, betiere lege honen 15.6 artikulan ezarritako prozedurari jarraiki.

3. Autonomia-erkidegoek egindako plan ekonomiko-finantzarioak eta berroeka-planak Zerga eta Finantza Politikako Kontseiluari bidaliko zaizkio, eta Kontseiluak jasotako neurriak egokiak diren eta aurreikuspenak finkatutako helburuetara egokitzen diren egiazatuko du. Egokitasuna balioztatzeko orduan, zerga arloko arautzeko ahalmenaren erabilera hartuko da kontuan.

Zerga eta Finantza Politikako Kontseiluaren iritziz aurkeztutako planean jasotako neurriek ez badute bermatzen desoreka-egoera zuzentza, plan berri bat aurkezteko eskatuko dio dagokion autonomia-erkidegoari.

Autonomia-erkidegoak ez badu plan berria eskatutako epean aurkezten, edo Kontseiluak uste badu plan horretan jasotako neurriak ez direla nahikoak helburuak lortzeko, 25. artikulan aurreikusitako neurri hertsagariak aplikatuko dira.

4. Toki-erakundeek egindako plan ekonomiko-finantzarioak udalbatzek onartu beharko dituzte. Toki ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginaren 111. eta 135. artikuluetan zehaztutako esparru subjektiboa jasotako erakundeei dagozkien planak Ogasun eta Herri Administrazio Ministeriora igorriko dira, behin betiko onar ditzan eta jarraipena egin dezan, ondoko kasuan izan ezik: toki-erakundeari dagokion autonomia-erkidegoak bere autonomia-estatutuan toki-erakundeen gaineko finantza-babesaren eskumena baldin badu.

Azken kasu horretan, plana dagokion autonomia-erkidegoari bidaliko zaio, eta horixe arduratuko da onartzeaz eta jarraipena egiteaz. Autonomia-erkidegoak Ogasun eta Herri Administrazio Ministerioari plan horien eta jarraipenaren emaitzen informazioa igorri beharko dio.

Plan ekonomiko-finantzarioak Toki Administrazioko Batzorde Nazionalari igorriko zaizkio, horien berri izan dezan. Legeetan erakundearen aurrekontuetarako ezarritako publizitate bera emango zaie plan hauetan.

5. Ogasun eta Herri Administrazio Ministerioak plan ekonomiko-finantzarioak, berroeka-planak eta onartutako neurrien betetze eraginkorra (benetan ikusitako eraginaren jarraipena eginda) publikoki ezagutaraziko ditu.

### **ONDORIOZ:**

Kontu-hartzaileak jakinarazten du Plan ekonomiko-finantzarioa ez dela aurkeztuko hilabeteko epean, beraz araua ez da beteko.

Mikel Zubizarreta Elicegui

Zumaiako Kontu-hartzailea>>

Arritokieta Gonzalezek (BILDU) gaia aurkeztu du; txosten ekonomiko-finantzarioaren aurreko plenora ekarri zutela eta legez hilabete bat duela hori aurkezteko, baina ez dela epea beteko eta datorren abenduko plenora ekarriko dutela bi arrazoiengatik: bat, Zumaia Lantzenen inguruan banketxearekin dabiltzalako, erantzunaren zain; gainera Foru Aldundiak datorren urterako aurrekontuak egiteko arauak publikatzeak daude eta epea



luzatu egiten du, hartara plan ekonomikoa errealagoa izango delakoan eramango dutela abenduko plenora esan du.

Edurne Egañak (EAJ-PNV) oso ondo etorri zaizkiela gauza guzti horiek, aitzakiak besterik ez dira, ez dutela egin, despistatu egin direla eta orain aitzakiak ematen dituztela esan du; eta Foru Aldundikoa gainera txapo etorri zaiela; Foru Aldundiak azaroaren bukaeran aurrekontuak egiteko irizpideak publikatzea, jaknik udaletxe gehienak ia azaroan aurrekontuak egiten dituztela edo eginda eduki beharko lituzkeela behintzat, harrigarria egin zaiola esan. 2010erako, orduan kontuhartzailea zenaren txostenean jada adierazten zen 2014rako zetorkigun hau; bazekitela denek 2014an zer zetorren baldin eta ez baldin bazen Odietako eta Torreagako gaiak konpontzen, hau da, mailegu guztiak lehertzen zirelako eta etortzen zirelako 2014an; harrituta utzi duela ikustea urtea aurrera zihola eta ia azkeneko sei hilabetean ere nola zeuden gaiak, eta gauzak ez zirela aldatzen, etxeak saldu ezinean ez zegoelako oraindik hori egiteko modurik, abendu arte itxoin izana bankuena egiteko; halako garrantzia duena azkeneko momentu arte, abenduko azkeneko momentu arte alegia, oraindik bankuen erantzunaren zain egotea eta arrazoi hortaz baliatzea aurrekontua atzeratzeko eta plan ekonomiko-finantzarioa, oso deigarria egiten zaiola esan du.

-----

## **7.- PERSONALA.-**

### **7.1.- IRIZPENA:**

#### **ZUMAIAKO UDALEKO LAN-KONTRATUDUN LANGILEEN LAN-BALDINTZAK ARAUTZEN DITUEN AKORDIOA INDARRALDIA MANTENTZEKO ONARPENA EMATEA, BIDEZKO BADA.**

**<<2013KO AZAROAREN 19KO PERTSONAL BATZORDEAREN IRIZPENA, ZUMAIAKO UDALEKO LAN-KONTRATUDUN LANGILEEN LAN-BALDINTZAK ARAUTZEN DITUEN AKORDIOAREN INDARRALDIA LUZATZEKO**

#### **AURREKARIAK**

2008ko irailaren 22an, Euskal Erakunde Publikoetako lan-kontratudun langileen Lan-baldintzak Arautzen dituen Akordioa sinatu zen 2008-2010 urteetarako, eta 2008ko abenduaren 2ko EHAAn argitaratu zen, eta gure erakundeko Osoko Bilkuraren 2008ko azaroaren 27ko akordioren bitartez, adhesioa sinatu zuen.

Aipatutako Akordioko 4. artikuluan xedatutakoaren arabera, Erakundeko gobernu-organo eskumendunak Akordioa berariaz eta modu formalean onartu eta hurrengo hilabeteko lehenengo egunetik aurrera sartuko da indarrean, 2010eko abenduaren 31ra arte, eta aldeetako edozeinek aipatutako indarraldia salatu ahal izango du data horretatik aurrera. Era berean, agindu horrek adierazten duenez, aldeetako edozeinek Akordioa salatzen badu, indarraldiak bere horretan jarraituko du juridikoki aplikagarriak zaizkion aurreikuspen guztietan.



## Zumaiko Udala

2013IAKU0012-008-001

Akordioaren gehienezko indarraldiaren epea iraungitzen denean, eta behin indarraldia salatuta, Akordioaren aplikazioak bere horretan jarraitu du data horretara arte, juridikoki aplikagarriak ziren arlo guztietan, ulertu baita klausula arautzaileak erabat aplikagarriak direla; eta hori, marko erregulatzalearen negoziaziorako kontaktuak hasi izanari kalterik egin gabe, horrek oraindik emaitzarik sortu ez badu ere.

Hala ere, lan merkatuaren erreformarako premiazko neurriei buruzko uztailaren 6ko 3/2012 Legea indarrean sartu izanak aldarazi egin du Langileen Estatutuko hitzarmen kolektiboetako ultrajardueraren idazketa erregulatzalea. Horrela, hitzarmen kolektiboaren indarraldia, behin salatuta eta itundutako iraupena amaituta, hitzarmenean bertan ezarritako terminoetan gauzatuko dela esan ohi den arren, finkatu dena hauxe da: hitzarmen kolektiboa salatu eta urtebetera oraindik ez bada hitzarmen berrik adostu, lehenengoak indarraldia galduko duela eta, halakorik balego, dagokion esparru handiagoko hitzarmen kolektiboa aplikatuko dela, bestelako itunik adosten ez baldin bada. Aipatutako legezko araua indarrean sartzean dagoeneko salatu diren hitzarmenen kasuan, eta Laugarren Xedapen Iragankorrean xedatutakoarekin bat etorriz, urtebeteko epe hori 2013ko uztailaren 8an amaitu zen.

Kontuan izanik langileen ordezkariekin sinatutako ituna, Zumaiko Udaleko Langileen Lanbaldintzak Arautzen dituen 2008-2010 urteetarako Akordioko xedapenak oso-osorik aplikatu ahal izateko eragindako udal langile guztiei, legez aplikagarria den orotan; eta hori, datozen urteotarako beste akordio erregulatzale bat lortu bitartean. Modu horretan, saihestu nahi dena da esparru handiagoko beste arau batek ardaztea Euskal Tokiko Erakundeetako langileen lan-harremanak denbora-tarte horretan.

### IRIZPENA

Ondorioz, 2013ko azaroaren 19ko Personal Batzorde informatzaileak, ondorengo botoekin:

Alde: EAJ, ARALAR eta BILDU

irizpena eman du eta honako Proposamen hau udalbatzako osoko bilkuraren iritzipean jartzea erabaki du, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuz onartutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozeduraren Arautegiaren 135.3 artikuluak xedatutakoaren arabera, arautakoari jarraituz, erabakia udalbatzako bertan daudenengi sinplea beharko delarik, apirilaren 2ko 7/1985 Toki Erakundetako Oinarrietako 22.2.i) eta 47. artikulan ezarritakoaren arabera, ondorengo **PROPOSAMENA** egin da:

1.- Idazketa berria ematea Zumaiko Udaleko LAN-KONTRATUDUN LANGILEEN lan-baldintzak Arautzen dituen 2008-2010 urteetarako Akordioko 4.4 artikuluari; horrela, aurreko 4.4 artikuluaren ordez, honela geratuko da idatzita:

- **4.4 art.: "Langileen Estatutuko 86.3 artikulan xedatutakoarekin bat etorri, eta lan merkatuaren erreformarako premiazko neurriei buruzko uztailaren 6ko 3/2012 Legearen idazketak sortu duen aldaketaren ostean, adostu da, Akordio berria lortzen ez den bitartean, oraingoak bere indarraldiari eutsiko diola, juridikoki aplikagarriak diren aurreikuspen guztietan".**

2.- 4.4 artikuluaren idazketa berria Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da. >>

Iñaki Ostolazak (BILDU) gaia aurkeztu du irizpenaren laburpena eginez

### ERABAKI ZATIA



Zumaiako Udala

2013IAKU0012-008-001

**Aldeko botoak:** 13 boto (6 BILDU, 5 EAJ-PNV, 1 PSE-EE, 1 ARALAR)

**Kontrako botoak:** 0 boto

**Abstentzioak:** 0 boto

### **Erabakia:**

1.- Idazketa berria ematea Zumaiako Udaleko LAN-KONTRATUDUN LANGILEEN lan-baldintzak Arautzen dituen 2008-2010 urteetarako Akordioko 4.4 artikulari; horrela, aurreko 4.4 artikuluaren ordez, honela geratuko da idatzita:

- **4.4 art.: “Langileen Estatutuko 86.3 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, eta lan merkatuaren erreformarako premiazko neurriei buruzko uztailaren 6ko 3/2012 Legearen idazketak sortu duen aldaketaren ostean, adostu da, Akordio berria lortzen ez den bitartean, oraingoak bere indarraldiari eutsiko diola, juridikoki aplikagarriak diren aurreikuspen guzietan”.**

2.- 4.4 artikuluaren idazketa berria Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da

-----

### **8.- UDALA ORDEZKATUA EGON BEHAR DUEN “UROLA KOSTA UDAL ELKARTEAN” AZIS ALBERDI ZINEGOTZIAREN ORDEZKOIA IZENDATZEA.-**

Alkateak jakinarazi du Azis Alberdiren ordez Maitane Agirre hautatu duela BILDUK

### **9.- ESKARIAK ETA GALDERAK**

1.- Montse Aranak (EAJ-PNV) San Joseko Plan Bereziak galdeku du



**Zumaiako Udala**

2013IAKU0012-008-001

Alkateak esan du behin-behineko onarpena Alkateak berak eginda, behin betiko onarpena Plenoak egin beharko duela.

2.- Alkateak Parrokiako ordularian egin den konponketaren berri eman du eta laugarren zenbakia erromatar hizkiz jarri beharrean lau marratxoekin jarri dela aditzera eman du, badirudi, oroitzeako erregeak erlojigileren bat hil zuela.

-----

Eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkate Lehendakariak bilera amaitutzat eman du, arratsaldeko zortziak direnean eta nik, Idazkariak, fede ematen dut.

Idazkaria



## ACTA DE LA SESION PLENARIA nº 73

En la villa de Zumaia, siendo las diecinueve horas del día veintiocho de noviembre de dos mil trece, se constituye en el Salón de Sesiones de esta Casa Consistorial del Pleno del Ayuntamiento, al objeto de celebrar sesión extraordinaria con arreglo al orden del día previamente señalado y habiendo sido citadas en tiempo y forma, acuden los siguientes miembros de la corporación:

**Presidente:** Sr. Iñaki Agirrezabalaga Alkorta

**Concejales:**

Sra. Arritokieta Gonzalez Elosua  
Sr. Iñaki Ostolaza Esnal  
Sr. Peru Fernandez Arroyabe Txapartegi  
Sr. Eneko Agirre Maiora  
Sra. Maitane Agirre Arrieta  
Sr. Montse Arana Perez  
Sr. Juan Carlos Cendoya Aizpurua  
Sra. Edurne Egaña Manterola  
Sr. Xabier Gallastegi Idigoras  
Sr. Isidro Fernandez Echave  
Sr. Aitor Leiza Alberdi  
Sr. Emiliano Cabañas Gonzalez

### No presentes

**Secretario:** Gorka Urgoiti Agirre

**Interventor:** Mikel Zubizarreta Elicegui



## ORDEN DEL DÍA

### 1.- APROBACION, SI PROCEDE, DE LAS ACTAS DE LAS SESIONES ANTERIORES:

(27.06.2013 núm. 67;  
11.07.2013 núm. 68;  
24.07.2013 núm. 69.)

Se tienen por aprobadas las actas 67, 68 y 69.

### 2.- EUSKARA.-

#### 2.1.- DICTAMENES:

##### 2.1.1.- DEJAR SIN EFECTO EL ACUERDO DE APROBACION DE LOS REQUISITOS LINGÜISTICOS A INCLUIR EN LAS CONTRATACIONES PUBLICAS DEL AYUNTAMIENTO DE ZUMAIA.

<<DICTAMEN DE LA COMISIÓN DE EUSKERA DE FECHA 19 DE NOVIEMBRE DE 2013 SOBRE LA DEROGACIÓN DEL ACUERDO DE APROBACIÓN DE LOS REQUISITOS LINGÜÍSTICOS A INCLUIR EN LAS CONTRATACIONES PÚBLICAS DEL AYUNTAMIENTO DE ZUMAIA.

### ANTECEDENTES

1.- El Pleno del Ayuntamiento, el 26 de diciembre de 2012 aprobó con carácter inicial los requisitos lingüísticos a incluir en las contrataciones públicas del Ayuntamiento de Zumaia. Dicho acuerdo fue publicado en el Boletín Oficial de Gipuzkoa de fecha 27 de febrero de 2013. Durante el plazo de exposición pública no se presentó ninguna alegación, por lo que, en el Boletín Oficial de Gipuzkoa de fecha 29 de abril de 2013 se publicó la aprobación definitiva.

